

HIRUGARREN MAILA 92-93.

II SORGINAK VIII

KATTALINEK.—Bai, ama, bai! zaude deskantsu... bihar berean hasiko dute gure anaiek beren josteta. Eta gero, zorbait egun goiti beheti, harrituak ethorriko baitzauzku gure liztorrak, ordian, arrats hartan, zurekin utziko ditugu bultaña bat, alegia zoin gure ohetarat gaki, eta gaineratekoa bego gu guzien gain... Bazaiztea oro?

JOSEPAK.—Bai, bagira guziak. Gora, biba Kattalin!

KATTALINEK.—Bihotzaren hazkartzeko, beharrik balu ere, kanta detzagun orai bertze atso batzueri persulari zaharrak eman koplak:

1

Herriko besta biharamunian,  
Berek dakiten xoko batian,

Lau andre, hiru mutxurdin, bat alarguna, jarriak itzalian,  
Harri xabal bat belhaunen gainian,  
Ari ziren ari ziren trukian.

2

Herriko besta arrats aphanian,  
Lau gathu zahar, anjelusian,

Bat maingu, hiru saltoka, sorginak, putes! zoazila bidian,  
Nik ikusi ditut amets batian,  
Akbelarre, akbelarre gainian!

Agur egin eta badoazi guziak, kantuz oraino:

Bat maingu, hiru saltoka, sorginak...  
**BIGARREN ZATHIA**

I

XOBADINA ETA BERTZEAK ORO  
(Salbu Maria eta Xaneta, artho xuritzen ari.)

JOANNAK.—Gure lana bururatua dugu, eta liztorrak ez zaizku oinon ageri. Ethorriko ahal dire balinba!

KATTALINEK.—Osoki zozotuak omen dire, harrituak! Gani-xek eta Oierrek erraiten zaukuten, ikustekoak ere zirela, zoin bere sukaldean. Ikhare-daldaran, hortzek klak klak egiten ziotela...

JOSEPAK.—Ez dute oihurik egin baterc?

LUIXAK.—Oihurik batere, mututuak,

KATIXAK.—Mututuak, Maria eta Xaneta! Ha, ha, ha, ha!

JOANNAK.—Ez zituen Jainkoak hobeki gaztigatzen ahal! Aituak bekatu, mibiak pekatu!

XOBADINAK.—Dohakabeak! Urrikari ditut hala ere. Ez ahal daude errexki beren etxetan nehoi laguntzarik galdatu gabe!

BENITAK.—Hemen gintuzkeen bai aspaldi, ahalke pitta, ez b...ute oraino. Gisa hartan gu utziak azken aldian eta, ez da hain errex Bordaxurirat itzultzea. Ez zautzu, Xobadina? XOBADINAK.—Aintzina, aintzina!  
(Xobadina ihurdestera doalarik, jotzen dute atbean.)

I ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

- 1) Kattalinen kalipua - Eta kantua.
- 2) Antzerki egilearen artetxasuna
- 3) Antzerkiako arizalek zer diote?

III. ADITZ IKASKUNTZA.

31 Zaude deskantou. 32. Kanta detzagun  
33. Erraiten zaukuten 34. Egiten ziotela.  
31 Egon. Conjugaison forte. Imperatif.

- (Hi) Hago = Reste  
(Zu) Zaude = Restez  
(Hura) Bego = Qu'il reste  
(Gu) Gauden = Restous  
(Zuek) Zauderzte = Restez  
Hek Beude = Qu'ils restent

32 UKAN. Imperatif.

Objet singulier

- Hik Ukan Zak/n = aie - le  
Zuk - " - Zazu = ayez - le  
Hark - " - Beza = qu'il l'ait  
Guk - " - Dezagun = ayons - le  
Zuek - " - Zazue = ayez - le  
Heiek - " - Bezate = qu'ils l'aient

Objet pluriel

- Ukan Zkik/n = aie - les  
- " (Zazue, Zkitzu) = ayez - les  
- " - Bitza = qu'il les ait  
- " - Ditzagun = ayons - les  
- " - Zkitzue = ayez - les  
- " - Bitzate = qu'ils les aient.

Sartzen dira... Maria eta Xaneta, bits-aldian osoki, eta zuri zuriu eginak.